

PLE 7-MAR-24 (7/CP)

« IKUSIRIK espedientean jasotako agiriak, Iruñeko Udalaren 2024ko aurrekontu luzatuari buruzkoak, Alkatetzak 2023-12-29ko ebazpenaren bidez onetsiak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin eta indarreko Aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, eta luzatutako aurrekontuko gastuei buruzko diru-sarreraren marjina eta kudeaketa-alorrek jakinarazitako beharrak kontuan hartuta, ERABAKITZEN DA:

1.- ONESTEA Iruñeko Udalaren 2024ko gastuen aurrekontu luzatuan goranzko doikuntzak, guztira 302.750 euroko zenbatekoarekin, honako xehetasun hauekin:

Aplikazioa	Izena	Kontzeptua	Zenbatekoa
40/15331/619000	Bide Publikoa. Inbertsioak, Konponketak, Azpiegiturak eta erabilera publikoko ondasunak	Berrurbanizazio- proiektuak erredaktatzea: Laguntzako Andre Maria eta Subiza kaleak; Juaristi Doktorea eta Labayen Doktorea; Basotxo	229.900,00
40/92062/640000	Eraikin orokorrak edota erabilera anitzekoak Azterlanak eta proiektuak	Arraiza Etxeko proiektua erredaktatzea	72.850,00

2.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie indarreko aurrekontua betetzeko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.

3.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki honetako 1. puntuan onetsitako aldaketak jendaurrean jartzea hamabost egun naturaleko epean, erabakia Iruñeko Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aitzina. Hasiera batean onetsitako aldaketa baten kontra jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztuz gero, Osoko Bilkurak berariaz behin betiko onetsi beharko ditu horiek indarra har dezaten, baina behin betiko berariazko onespen hori ez da beharrezkoa izanen erreklamaziorik jaso ez duten aldaketek indarra har dezaten.

Pamplona, a 25 de marzo de 2024

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

DILIGENCIA / EGINBIDEA

La pongo yo, el Secretario del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Pamplona, para hacer constar que el presente documento ha permanecido expuesto al público en el Tablón de Edictos de este Ayuntamiento desde el día 8 de marzo de 2024 hasta el día 22 de marzo, ambos inclusive, para dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, sin que en dicho periodo se hayan producido reclamaciones.

Nik jartzen dut, Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurako idazkaria naizen honek, jasota uzteko agiri hau Udalaren ediktu-taulan jendaurrean egon dela ikusgai 2024ko martxoaren 8tik 22ra bitarte, bi egun horiek barne, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa betetze aldera, aldi horretan ezin erreklamaziorik aurkeztu ez delarik.

EL SECRETARIO / IDAZKARIA,